



**eskohitza**  
danona da

# EKIPAMENDUAK

- Orokorrean, nahikoa ekipamendu publiko dago, baina, beharrezkoa ikusten da instalazioen mantentze-lanak aldiro egitea, ekipamenduak herritarren eskaerei egokituz. Zenbait gune birgaitu beharko lirateke (kiroldegia, frontoia, ...).
- Ekipamenduen kudeaketa bateratuaren garrantzia.
- Irisgarriak izan behar dira. Jendeak erabili behar ditu eta gauzak antolatu behar dira jendeak erabili ditzan. Panel elektronikoak erabiltzea herriko ekitaldi sozialak, kulturalak, kirol ekitaldiak, ... iragartzeko.
- Beharrezkoa ikusten da kale eta baserri auzo bakoitzak lokal edo bilera lekuren bat izatea auzo-giroa sustatzeko.

# GUNE PUBLIKOEN SISTEMA OROKORRA

- Jolasleku estalia egitea. Hirugarren adinekoentzako bidegorrian dagoen gunea ere markesina batekin estaltzea.
- Bidegorria: udalerrri osora zabaldu behar da, auzoak herrira lotuago egoteko.
- Bizikleta-bidea sortzea herrigunean. Bizikletaren erabilera sustatzea eskolara, kiroldegira eta abarrera joateko.
- Herri inguruan zirkuitu bat egokitu, eta hainbat guna berreskuratu, esate baterako, Bidebarrieta, alberja eta Iturrixar.
- San Pedro eta Bidebarrietako parkeetan mantentze-lanik ez dago. Erreketan mantentze-lanak egin beharko lirateke.
- Auzo eta elizateetarako oinezkoentzako bideak hobetu: bazterbideak, espaloiak,...
- Antzinako bideak eta bidezidorrak berrezkuratu (Sorautz-Eraña, Elorreta-Zubizarro,...) edo berriak sortu (Aizkorri parkea, Atxorrotz, auzoak,...) eta seinaleztatu.

# ETXEBIZITZA ETA ERAIKINEN ETA HORIEN INGURUKO ESTETIKA

- Ez da ikusten etxebizitza gehiagoren beharrik arau subsidiarioetan aurreikusitakoak amaitu (hasita daudenak), egin eta saldu arte.
- Garapen urbanistikoak naturarekin harreman estuagoko ingurunetan egiteko modua aurkitzea, sakabanatuago, ez orain arte egindakoen besteko dentsitatekoak.
- Gazteentzako alokairuzko etxebizitzak sustatzea.
- Egun dauden etxebizitzaren inbentarioa egitea: jendea bizi den etxebizitzak, etxebizitza hutsak, eta horrekin batera etxebizitzetarako irisgarritasuna eta bertan bizi direnen diagnostikoa (adina...) jasotzea.
- Etxeak zahar-berritzea sustatzea.
- Eskoriatzarako sarrera txukuntzea, bai urbanizazioa bai amaitu gabeko eraikinak.
- Orokorrean, Eskoriatzako fatxadak oso eskasak dira inguruko beste herri batzuetakoekin konparatuta. Udalak gutxieneko batzuk eskatu beharko lituzke, zonaldeka, eraikinetako fatxadak politagoak egiteko.
- Eraikin jabeek ez dituzte beraien fatxadak zaintzen. Eraikin bakoitzeko jabeak inplikatu gura dira bakoitzak fatxadan egin beharreko lehenengo obra (leihoak aldatu, galdara jarri eta abar) egin aurretik guztiek konpromisoa har dezaten hortik aurrera egingo direnak ere berdin egiteko.

# GUNE NARRIATUAK

- Eskoriatzako sarrera: Intxaurtxueta. Teorikoki urbanizatu egin behar da eta gero eraiki.
- Bidebarrieta, alberja ingurua, zubia, Iturrixar,... errekuperatu.
- Merkatua: lekuz aldatzea proposatzen da: Gorosarri plaza eta arkupeak, Santa Mariñe plaza, herriko plaza.
- Herriko irteera: Aingeru Guardako gune industrialala.
- San Biatorreko etxartea: Dorletarantz oinezkoentzako zubia egin.
- Aranburuzabala kalea berrurbanizatu.
- San Pedro auzoari errepasso bat eman, parkea.
- Esteibar ingurua.
- Errekak berreskuratu: ubide irekia, ur zikinak jaso, ur jauziak errekuperatu, ...
- Tabernetako hainbat terrazek oinezkoen bidea oztopatzen dute.
- Hilerria: atseginagoa egin, hormigoiei gehiegi bistan, nitxoak tapatu, ...
- Olazarreko antzinako ubidea dokumentatu.

# ZERBITZUAK

- **Garbitasuna:** garbitasun falta, gune batzuk egunero garbitzen dira eta beste batzuk noizbehinka, zakarrontzi guztiak ez dira husten, garbiketa sistema zaratatsua da, fatxadak garbitu daitezke?
- **Argiteria:** inguru batzuk nahiko ilun daude (San Pedro: parke ingurua; Hidalga: atzeko aldea; herriko plaza, Olazar, bidegorria: arbolek argia kentzen dute eta ilun geratzen da; farolak zikinak daude, ...); Ibarraundi/eliza: argiak piztu-amatatzeke ordutegia jarri; Gabonetako argiak: minimoa jarri; LED eta fotoboltaikoak ondo.
- **Saneamendua:** Eskoriatza guztira zabaldu.
- **Ura:** etxekoa oso ondo. Kaleko iturriak era egokian mantendu. Baserri batzuetan arazoak dituzte: Zarimutz, Mazmela...
- **Elizateetako zerbitzuen azterketa egin.**

# GORABEHERAK

- **Gorabehera baten aurrean, erantzun eskasa, deskoordinazioa sumatzen da.**
- **Asteburutan erantzun kaxkarragoa.**
- **Udalaren jarrera: zerbait apurtzen denean Udala defentsiban jartzen da, eta bere eskumena ez denean, bere eskumena ez dela esaten du.**

# MUGIKORTASUNA ETA IRISGARRITASUNA

- **Aparkaleku mugatuko guneak, TAO, tarifak ezartzeko sistema intelijentea.**
- **Zerbitzuguneetarako aparkaleku propioak (unibertsitatea, osasun zentroa, ...).**
- **Eraikigarritasuna aparkalekuengatik aldatzea.**
- **Aparkaleku falta elizateetan.**
- **Oinezkoak eta bizikletadunak sustatu eta lagundu.**
- **Garraio kolektiboa sustatzea.**
- **Oinezkoen eta ibilgailuen trafikoa arautzea herrian.**
- **Garraioaren irudi publikoa hobetzeko informazio eta sentsibilizazio kanpainak egitea.**
- **Elizateetako garraio publikoaren eskaintza aztertzea.**
- **Elizateak bidez lotu elkarren artean.**
- **San Pedro auzoan oinezkoentzako irisgarritasuna hobetu (14, 15, 16 eskapeen inguruan).**
- **Erdiko kalea oinezkoentzako jartzea trafikoa arintzeko -garraio publikoa eta zerbitzuetarako izan ezik- edo trafikorako ordutegia jartzea.**
- **Autobus azkarra.**